

Ez dira hain beltzak igarkizunak.
 Ez dira itzalak hain luzeak.
 Ez da ilunegia esperantza.

ZABALDU MARATILA, IREKI LEIHOA:

Lanean ari dira etengabe sormenaren laborategi eta tailerrak.
 Zabal-zabalik euskal artearen lantegiak.
 Joka mailuak tinko.

Jon Gerediaga



PREZIOAK	BONOAK
6 € - 15 €	Maiatzak 30: 10 € Maiatzak 31: 15 € BONOMARATILA (aste osoa): 40 €



MAIATZAK 28

“Katillukadak”
 Kontakatillu

MAIATZAK 29

“Gloriaren kantua”
 Khea Ziater

MAIATZAK 30

“Hartu ez nuen deia”
 Café Bilbao sariaren irakurketa + Solasaldia
 Mursego

MAIATZAK 31

“Gure bide galduak”
 Dejabu Panpin Laborategia
 “Txori mugariak”
 Maialen Lujanbio & Xabier Erkizia

EKAINAK 1

“Larria, kutsakorra,
 mendebaldekoa”
 T(a)rtean Teatroa

EKAINAK 2

“Errimak oinetan”
 Haatik Dantza Konpainia
 DJ Musika saioa

**Leioa
 2012**

ARTEDRAMA eta KULTUR LEIOAK elkarlanean sortutako aste kulturala.
 Antzerkia, dantza, bertsoa, musika, performantzea... uztartu eta plazaratzea helburu.
 Aste betez publikoak **euskal sorkuntza** ezberdinez gozatzeko parada.
 Zabaldu maratila, ireki leihoa.

DISEINUA: Idoia Beratarbide & krea komunikación

“KATILLUKADAK” KONTAKATILLU

AKTORE ETA TEKNIKARIAK:
Aitor Ormaetxea eta Mikel Ibarzabal

PUBLIKOA:
Familiarra (Eskola kanpaina)

Maiatzak 28
(9:30 / 11:00)



Auditorium · 55'

“GLORIAREN KANTUA” KHEA ZIATER

ZUZENDARIA:
Alex Gerediaga

AKTOREAK:
Leire Ucha eta Na Gomes

Gloria: “Orain, nire maitea, joan egin zara, eta kez inguratuturik utzi nauzu. Orain, nire maitea, alde egin duzu, eta nire bihotza hutsik dago eta kez beterik. Ez dut honezkero zure musika entzuten, baina saiatzen naiz dantza egiten oraindik. Ezin dut zure musika entzun, eta nik dantzan jarraitu nahi dut, besterik ez.”

Maiatzak 29
(20:30)



Auditorium · 60'

“HARTU EZ NUEN DEIA” (CAFÉ BAR BILBAO TEATRO LABURREKO 1. SARIA 2011)

IDAZLEA:
Fredí Paia

AKTOREAK:
Ander Lipus, Ramon Agirre, Ane Pikaza eta Ana Elordi.

MUSIKARIA:
Mixel Etxekopar

Maiatzak 30
(20:30)

Antzezlan labur hau, maite ditugun pertsonak heriotzaren aurrean betiko agurtzearen garrantzian oinarritzen da. Autoreari hil baino egun bi lehenago deitu zion aitak, baina ezin izan zuen deia hartu. Pertsonaia guztiek etorkizuna ezagutzen duten fikzio honetan, protagonistaren aitak hil egingo dela esan eta betiko agurtzeko deituko dio semeari.

OHARRA: Irakurketa amaitutakoan solasaldia egingo da Fredí Paia eta Mikel Martinezekin.

ESTREINALDIA




Anbigu · 25'

MURSEGO

Saguzarrek buruz bera begiratzen diote munduari. Maite Arroita-jauregik buruz behera ez, baina dudarik gabe bere leku propioetik begiratzen dio. Ume zein helduak irribarrez eta liluraz uzten ditu, txeloa ukelele eta casiotone teklatura elegantziaz nahastean. Eragin daiteke barrea, barregarri izan gabe? Bai, bihotzarekin egiten denean kantu.

Maiatzak 30
(22:00)



Anbigu · 60'

“GURE BIDE GALDUAK” DEJABU PANPIN LABORATEGIA

AKTOREAK:
Urko Redondo, Miren Alkala, Maria Alonso, Iñigo Aranbarri eta Ainara Gurrutxaga

MUSIKARIA: Arantxa Vicedo

Maiatzak 31
(20:30)



12 €
Auditorium · 70'

“TXORI MUGARIAK”

HITZAK, AHOTSA, KANTUA:
Maialen Lujanbio

HITZAK, SOINUAK, MAKINAK:
Xabier Erkizia

Hegoaldea Iparraldea ere bada. Eta Iparraldea Hegoaldea. Ez da hego-iparririk nondik gabe. Eta nondik beti da zergatik. Txori mugariak ez dakite... Bidea kantu bat da. Aire bat lur egin. Norabidea, non nora baino garrantzitsuago den bidea, ibilbidea, non bidea baino garrantzitsuago den ibilia. Txori migrariak joan doaz... Gu, txori mugariak gara.

Maiatzak 31
(22:00)



6 €
Erakusketa Aretoa · 50'

“LARRIA, KUTSAKORRA, MENDEBALDEKOA” T(a)RTEAN TEATROA

ZUZENDARIA:
Jokin Oregi

AKTOREAK:
Mikel Martinez

Mila esker esperimentu hirukoitz honetan lekuko izateko gonbitea onartzeagatik. Seguru gaude ez zaizuela damutuko, apaltasunez esan bait dezakegu, negozio farmazeutikoaren esparruan kontzeptu berri bat sortu dugula, gure enpresa goren mailan kokatuko duena. Azken froga honetan, guztiok batera, arrakastaren sentipena dastatuko dugu.

MAX SARIA

Ekainak 1
(20:30)



10 €
Auditorium · 70'

“ERRIMAK OINETAN” HAATIK DANTZA KONPAINIA

ZUZENDARITZA:
Aiert Beobide eta Unai Elizasu

DANTZARIAK:
Aiert Beobide, Garazi Lekuona, Maitane Mujika, Onintza Odriozola eta Gotzon Poza.

Bertsolariek sentipen eta emozioak harilkatzen dituzte entzuleengan. Baina entzule horiek dantzariak balira? Nola adieraziko lukete belarrietatik jasotako zirrara errimatua oin puntetan menderatzen duten dantzaren bidez? Galdera horren erantzuna da “Errimak Oinetan”, bertsolaritza oinarri duen dantza emanaldia.

Ekainak 2
(20:30)

ESTREINALDIA



10 €
Auditorium · 75'